



Aitz Iturri 1, local 7 - 20570 Bergara - 943 044 728
info@ixotu.com - www.ixotu.com IXOTU GOI S.L.

IXOTU GOI S.L. Led teknologiaren eskaria asetzeko sortu dugu. Horretarako, lan-talde erabat prestatua daukagu, argiztapen proiektuetan gida zaitzan.

LED material banatzaileak gara, bai elektrizitate eta dekorazio-argiztapenaren sektoreko profesionalentzat, bai partikularrentzat.


Teknika berriak probatzeko grina duen empresa dinamikoa gara. Horrek aukera ematen digu bezeroaren beharrek bat datozen lanak egiteko eta produktu eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko.

Energia-eraginkortasunarekin konprometituta gaude-nez, proiektu bakoitzari dagokion konponbidea ematen diogu; autosufizientzia energetikoa ere lor liteke.

Ixotu Goi zerbitzuak

LED argiztapenaren banaketa eta instalazioa

Ixotu Goin askotariko LED luminariak dauzkagu leku desberdinetan ipintzeko, industrialetan zein komertzio, kirol-instalazio, aparkaleku eta gasolina-zerbitzuguneetan. Produktuen inguruan aholkatuko zaitugu, eta egoera bakoitzarentzako konponbide onena eskaintzen dugu.



Proiektuak, lanen zuzendaritza eta gremioen koordinazioa

Argiztapen proiektuak burutzen ditugu: azterketa teknikoa egiten dugu egoera bakoitzean argiztapen maila egokia bermatzeko, indarrean dauden arauak betez.

Interiorismo proiektu osoak egiten adituak gara, banakako eta neurri egindako laguntza ematen dugu eta 16 urte baino gehiagoko eskarmentuak bermatzen gaitu. **Lanen zuzendaritzaz** arduratzen gara lanak behar bezala gauzatu daitezen, proiektuek adierazi bezala. Gure zerbitzuen barnean daukagu **gremioen koordinazioa**, bezeroei gremio ezberdinekin egin beharreko kontratazio eta negoziazioak errazteko.

Elektro kutsadura

Arrisku eragileak edo bizileku bateko bizilagunengan eragina izan lezaketen kutsadura iturriak aztertzen ditugu:

Eremu elektrikoak E. elektromagnetikoak
Lurrerako zirkuitu paraleloa Eremu magnetikoak

Instalazioa egiterako orduan:

- Kable blindatuen (halógeno gabeen) erabilera eta mekanismo pantailatuak
- Instalazio egokia
- Lurrerako hargunea edo lur hargune deribazioa
- Saihestuz edo murriztuz

Haririk gabeko telefonia, telefonía mugikorra, WLAN transmisio sarea, umeentzako Interfonoak, Antenak, WiFi, Antena Parabolikoak, irrati-iratzargailuak, Erregulazio elektrikoa duten ohe eta sofak, indukzio eta bitrozeramika sukaldeak, elektrotresnak...

Bukaeran, egiaztatze-neurriak hartzen ditugu, helburua lortu dela ziurtatzeko:



Bizilekua edo lanpostua leku osasungarri bihurtzea

Led luminaria aukeratzeko orduan

Igorritako argiaren kalitatea (CRI)

Erreproduzio kromatikoaren indizeak, CRI (**Color Rendering Index**) adierazten du argi iturri batek duen gaitasuna argizatutako objektu baten koloreak fidelki erreproduzitzeko. **Argi iturri ezin hobearekin** edo eguzki-argia bezalako iturri naturalarekin alderatuta hartzen da, 100 balio perfektua izanda: eguneko argiak ematen diguna.

LEDen erreproduzio kromatikoaren indizea 97ra iritsi daiteke; horrela, kolore gardenenak eta bizienak erakutsi eta era fidelagoan erreproduziaz ditzake.



CRI 51



CRI 80



CRI 90

Iturriaren igorpen kolorea gradu Kelvinetan zehazten du. Normalean merkatuan aurki ditzakegun kolore tenperaturak 2700-3000°K-tik (zuri epela), 4000-4600°K (zuri neutroa), 5500-6500°K-ra (zuri hotza).

Led-ek halogenoak ordezkatzea

Aukera dago etxeetan ditugun ohiko luminariak LED luminariak ordezkatzeko, beti ere, pizte unitateak errespetatzen badira. Gainera, beharrezkoa litzateke bestelako alde batzuk kontuan izatea:

Instalazioa: lanpara-zorro berdina izatea. Horrela izango ez balitz, egokitu beharko litzateke.

Argi-fluxua: LED baten eta daukagun luminaria klasikoaren arteko baliokidetasuna aurkitzeko, izan ere, Vatioen potentzia ez da berdina. Baliokidetasun taulak daude, ordezkatzeko luminaria aurkitzen lagun diezaguten.

Kolore-tenperatura: Ipini nahi dugun argiaren kolorea zehazteko. Tenperaturak zehazten du gradu Kelvinetan: Zuri epela, Zuri neutroa, zuri hotza...


Argi irekidura: Proiektatutako argiaren angelua da. Lekua zein den eta zenbat bildu nahi dugun argi-izpia, kontuan hartu beharrekoa.

Moldaeraztasuna: Argiztapen beharretara eta leku ezberdinetara moldatzeko LED argiztapenen gaitasun handia, tenperatura, kolore eta diseinu maila dela eta.

Argi epela

Argi neutroa

Argi hotza



2.500°K

3.000°K

4.000°K

5.000°K

6.000°K

8.000°K

Segurtasun Fotobiologikoa, arriskutsua da erradiazioaren eragina azalean eta begietan. Argi maila altuek begietan kalte termiko eta fotokimikoak eragin ditzakete. EN62471 arauak "luminaria eta bonbilla sistemen segurtasun fotobiologikoak" arrisku kategoriak mugatzen ditu: RG 0 (arriskurik gabea), RG1 (Arrisku txikia), RG2 (neurritzko arriskua), RG3 (arrisku handia)

LEDek daramaten **elikatze-iturri** elektronikoak, behe-tentsioan lanean, 220Vtara konektatu ahal izateko. Beharrezkoa da ezaugarriak aztertzea, arazoak sorrarazi baititzakete.



Itsualdi bateratuaren indizea (UGR19), Itsualdia iku-seremuaren barnean gune ditziratsu batek sorrarazten duen sentsazioa da, eta aztoragarri eta desatsegina gerta liteke. Gainazaleko islatzeak eragiten duen itsualdiari islatutako itsualdia edo estalki itsualdia esaten zaio.

Itsualdia mugatzea beharrezkoa da okerrak, nekea eta istripuak ekiditeko.

Luminariak argi homoginoa igorri behar du sumatutako itsualdi sentsazioa leuntzeko, eta aldi berean, argi intentsitate maila ezin hobearik eta kontsumo murriztuak eskaini behar ditu.